

BILBO. Dirua aurreztu eta ingurumena zaindu gura dabenezako ekimena da

Bidaiatzeko lagunak nahierara

Autoa konpartitzeko zerbitzua eskainiko dabe Foru Aldundiak eta Udalak, Internet bidez



ALFREDO ALDAI / EFE

Gure errepideetan auto gitxiago ibiltea da ekimenaren helburua.

Iruñe Berro

Autoa konpartidu ekimena aurkeztu eben, atzo, Diputazinoko Garraio diputau Jose Felix Bazozabalek eta Bilboko Udaleko Zirkulazino eta Garraio zinegotzi Isabel Sanchez Roblesek.

Dirua aurreztu eta ingurumena zaindu gura dabenez herritarrei zuzendutako zerbitzua da: autoan lekua daukienei eta autoa baten bategaz konpartidu gura dabenezako. Edota auto-rik ez daukien eta halabeharrez

bidaiatu behar dabenezako. Compartir S.L enpresek sortu eban zerbitzua, orain urte bi. Eta Madril eta Bartzelonan denpora horretan probau ondoren, bizkaitarren txandea heldu da. Autoa konpartidu gura dabenez guztiek Diputazinoak alde batetik, eta Udalak, bestetik, daukien web orrietara sartu eta hantxe aurkituko dabe zerbitzu barri horretara sartzeko loturea: www.bizkaia.net eta www.bilbao.net helbideetan, hain zuzen. Auto bako eguna

ospatuko da domekan, eta Europa mailako ekimen horren barruan aurkeztu eben zerbitzua. Auto pribauaren erabilera zentzuduna bultzatu gura dabe, eta horretarako, garraio publikoagaz batera osagarriak diran neurriak hartuko ditue.

Autoa konpartitzeko zerbitzuak on line erako funtzionamendua dauka. Behin zerbitzuaren web gunera sartuta, erabiltzaileak nondik norako bidaiak egin gura dauen zehaztuko dau. Sakatu, eta asmo bera dau-

PROZEDUREA

Erabiltzaileak nondik nora joan gura dauen zehaztuko dau, eta asmo bera daukienez zerrendea agertuko deusie

MUNDU ZABALERA

Mundu mailako plataformea da, eta Bizkaiko herrietatik 70 herrialdetara bidaiatzeko aukerea emoten dau

kien zerrendea agertuko jako zuzenean. Orduantxe azalduko dira pertsona horreen ezaugarriak: bidaiak hori egiteko zein ibilbide egiten dabenez, zein auto daukien, edadea, erretzaileak diran edo ez...

Zerbitzua erabiltzen hasi barri diranak zerrendako jentearen artean aukeratutako pertsonari mezu bat izteko aukerea eukiko dau, zeozer galdetzeko edo dudaren bat argitzeko. Beste aukeretako bat zerbitzuan izena emotea da. Baina gerta leiteke guk gura dogun bidaiak hori inork ez egitea. Kasu horretan, guk proposatuko dogu hori. Halandaze, toki zehatzak be proposatu daitezke: kontzertuak, jaialdiak... Compartir S.L enpresako arduradun Francesc Pallarolsek esan ebanek, Katalunian unibersidadeko ikasleek eta lantegi handietako beharginek erabiltzen dabela asko zerbitzua.

70 herrialdetara joateko bidaiak

Autoa konpartidu zerbitzua, ganera, mundu mailako plataformea da, eta Bizkaiko edozein herrietatik munduko 70 herrialdetara bidaiak egiteko aukerea emoten dau. Horrezaz ganera, erabiltzaileendako txata dauka. Erabiltzaile ez diranak be hantxe ibili daitezke, zerbitzuaren inguruko xehetasunak eta jentearen esperientziak ezagutzeko.

Danetara, 10.500 erabiltzaile ditu mundu osoan. Horretako 5.000, Espainian. Euskal Herrian, oraindino, gitxi. Baina apurka-apurka jentearen ohitura indibidualista aldatu eta jentete gehiago batzea zerbitzura itxaroten dabela esan eban Pallarolsek.

LABURAEAN

KULTUREA

Jose Antonio Labordetak eta Gozategi taldeak kontzertua emongo dabe gaur

Jose Antonio Labordeta kantariak eta Gozategi taldeak joko dabe, gaur, Bilboko Udaleko Kultura Sailak gertutako Pergola Kulturala programearen barruan. Casilda Iturrizar parkean emongo dabe kontzertua, iluntzeko zortietatik aurrera. Umeek, barriz, *Morgan Pirata gaiztoa lapurretan* antzezla ikusteko aukerea eukiko dabe, Zenbat Gara alkartearen eskutik, eguerdiko hamabietan.

ENKARTERRI

Drogen ganean informazioa emoteko zerbitzua zabaldu dabe

Drogek sortzen dituen arazo ganean informazioa emoteko zerbitzua zabaldu dau Enkarterriko Mankomunidadeak, Etorkintza fundazioaren laguntzeagaz. Familia eta irakasleei zuzenduta dago zerbitzua, batez be, eta zuzenean edo telefono bidez lortu leiteke informazioa. Mankomunidadeak Zallan daukan egoitzan kokatuko da zentroa, eta eguenetan eta barikuetan Karrantzara, Sopuertara eta Sodupera eroango dabe.

SESTAO

Diru laguntzea eskatu deus Udalak Eusko Jaurlaritzari, gizarte beharginak kontratatuko

Gizarte behargin bi eta administrari bat kontratau gura dau Sestaoko Udalak. Eta diru laguntzea eskatu deus Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Enplegu Sailari. Danetara, 24.484 euro eskatu deusiez. Joan dan urtean, diru laguntzea jaso eben, eta lau behargin eta administrari bi kontratau zituen.

BILBO

Atxuri eta Bolueta arteko zerbitzua astelehenean zabalduko dabe

Atxuri eta Bolueta arteko trenbide zatiaren obrak amaituta, geltoki bi horreek batzen dituan zerbitzua hasiko da, astelehenean. Zati hori hobetu eta tranbiarako egokitu dabe. Danetara, 8,2 milioi euro inbertidu ditue. Ganera, Atxuriko geltokia erabat barritu dabe. Trenendako eta tranbiarendako toki barria egin dabe, eta geltokiko sarrerea atundu.



EuskoTren

Atxuriko Geltokia berriro irekitzea eta Atxuri eta Bolueta arteko zerbitzua berriro martxan jartzea

2002ko irailaren 16a

EuskoTren-ek jakinarazten die bere bezeroei irailaren 16an, astelehenean, Atxuri-Bolueta arteko ohiko tren zerbitzua berriro ere martxan jarriko dela, instalazio eta ekipamendu hauen goitik beherako berriztapen lanak amaitu ondoren.

EuskoTren-ek obrek iraun duten bitartean martxan jarri dituen zerbitzu alternatiboak amaitutzat jotzen dira. Horrela, eta astelehenean, irailaren 16tik aurrera, Bilbo-Donostia eta Bilbo-Bermeo lineetako trenen ibilbidea, jada berriztatutako egongo den Atxuriko geltokian amaituko da.

EuskoTren-ek trenbide zati honetan burutu duen goitik beherako berriztapen lanaren aurrekontua 8,2 milioi eurokoa izango da, eta lan hauek sartu dira bertan:

- Atxuriko geltokiko atariaren berriztapena.
- Trenbideen berriztapena.
- Trenbideko maniobra gunen berriaren eraikuntza.
- Tranbiarako tailerren eraikuntza.
- Mirafloreseko tunelen zabalkuntza.

EuskoTren-ek eskertu egiten du bezeroek izan duten ulermena eta kalitatezko garraio publiko jasagarriaren aldeko konpromisoa adierazten du.

Bezeroaren arretarako telefono zenbakia: **902 5 4 3 2 1 0**

aurrera doan herria



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

GARRAIO ETA
HERRI LAN SAILA
DEPARTAMENTO DE
TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS